



**Jangela Zerbitzua**

## JANGELA 2017/18 IKASTURTEA

### IZENA EMATEKO EPEAK:

- Urte batetik bestera erabileran aldaketaren bat egin nahi duenak ikasturte amaieran eta iraileko lehenengo egunetan adierazi behar dio arduradunari.
- Zerbitzua ohiko bazkaltiarrekin (4 edo 5 egun astean) antolatzen da. Ondoren jakiten da urtero ez ohikoentzat lekurik dagoen ala ez.
- Ez ohiko bazkaltiar izan nahi dutenak aldiro bulegotik pasa behar dute arduradunarekin hitz egin eta apuntatzeko orria betetzera. Irailaren 15aren ondoren ez ohiko bazkaltiarren familiekin bilera bat egingo da.

### ALDAKETAK:

- Epean jarritako egun horretatik aurrera ezingo da aldaketarik egin, ez egun kopuruan, ezta egun aldaketa ere. Salbuespen bakarra ohikoen artean 4 egunetik 5era pasatzea da.
- Ikasturtean zehar ohikoren batek baja ematen badu, eta gero, berriro hasi nahi badu, ez ohikoen kuota izango du.

### KOBRANTZA ETA DESKONTUAK:

- Ikasle bakoitzari apuntatzen den egun kopurua kobratuko zaio. Kopuru hori 10 kuotatan kobratuko da.  
(Ohikoak: **4,60€** eguneko, ez ohikoak: **5,20€** eguneko, garraiatuak: **3,30€** eguneko.)

### ITZULKETAK:

- Ohiko bazkaltiar diren ikasleei %50 itzuliko zaie honako kasuetan:
  - Eskolak antolatutako zerbaitengatik (irteerak...) jangela ez bada erabiltzen.
  - Ikasle batek jangelara 4 egun jarraian huts egiten badu, gaixotasunagatik denean, sortzen den momentuan ondo abisatuta; eta beste kasuetan, 48 ordu lehenago abisatuta.
- Ez ohiko bazkaltiar diren ikasleei %100 itzuliko zaie aipaturiko kasuetan.
- Itzulketa horiek falta diren hilabeteetako kuotak birkalkulatuz gauzatuko dira.

### ABISUAK:

- Egunen batean jangela ez bada erabili behar, jangelako arduradunari 24 ordu lehenago abisatu behar zaio eta alergiaren bat duten ikasleek 48 ordu lehenago. Abisatzeko bideak: ikasleak berak eskuz idatzizko oharra emanaz, telefonoz (943555423) edo e-maila bidez (laubidieta@langile.eus), beti 11:00k baino lehen.
- Jangelako bazkaltiarra ez den norbaitek zerbitzua bat-bateko premia dela eta erabili beharko balu, abisatu beharko luke eta egun horretako zerbitzua eskuz ordaindu beharko dio jangelako arduradunari edo administrariari (Laubidietan). Egunekoa: 5,20 €

Edozein zalantza, aldaketaren aurrean... jangelako arduradunarengana jo behar da beti.

**Gelaburu eta Jangela Batzordeak**